

**Pobreziaren**

**aurkako**

**Estatu Ituna**

pobreziaren aurkako estatu ituna



# Pobreziaren aurkako Estatu Ituna

Dokumentu hau sinatzen dugunok, Diputatuen Kongresuan ordezkatutako aukera politikoen aniztasun demokratikoa islatzen dugun indar politikook,

Honako hausnarketa hauek egin ditugu:

1. Munduko pobrezia errotik kentzeko agindu etiko, sozial, politiko eta ekonomikoa dugula, eta, horretarako, ezinbestekoa dela nazioarteko elkarlanaren lan irmoa eta eraginkorra.
2. Helburu hori lortzeko asmoz, Espainiak hainbat eta hainbat konpromiso hartu dituela bere ibilbide demokratikoan zehar, bai nazioarteko komunitatean, bai herrialdean bertan.
3. Milurteko Garapen Helburuak –Nazio Batuen 2000. urteko Batzar Nagusian aldarrikatuak eta 2005eko Batzar Nagusian berretsiak– eremu egokia direla epe ertainean pobrezia deuseztatzen jarraitzeko.
4. Helburu horiek beteko direla bermatzeko ezinbestekoa dela nazioarteko komunitateak etengabeko ahaleginak egitea. Espainiak ere ahalegin horretan parte hartu behar du, Europako Garapenerako Adostasunaren printzipioak kontuan hartuz.
5. Espainiak Milurteko Aldarrikapenarekin eta haren edukiekin bat egin izanak adostasun-politiko eta gizarte-adostasun indartsua dakarrela. Hori guztia argi geratu da herritar gehienek borondatean, herrialde behartsuenganako elkartasun aktiboari eustearen alde agertu baitira.
6. Elkartasun-ahalegin hori garatzen den erakunde-esparrua eta esparru politikoa hainbat legealditan egindako lanaren emaitza dela, eta hainbat aurrerapen egin direla: adibidez, Nazioarteko Elkarlanerako Legea, Elkarlanerako Kontseiluaren sorrera eta Kongresuko Elkarlanerako Batzordearen sorrera. Egungo legealdian Espainiako elkarlanaren arloko eragile guztiek ere – gobernuak, alderdi politikoez, administrazio autonomikoez, GKEek, unibertsitateek, enpresek, sindikatuak– esfortzu handia egin dute honako esparru hauetan batera aurrera egiteko:
  - Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) areagotzeko –termino absolututan nahiz erlatibotant–, eta Espainiaren nazioarteko konpromisoak betearazteko
  - Eragileen arteko elkarriketa, koordinazioa eta adostasuna bultzatzeko
  - Laguntzen plangintza, jarraipena eta ebaluazioa batera egiteko
  - Politiken koherentzia areagotzeko
  - Elkarlanaren kalitatea bultzatzeko tresnak erabiltzeko

## Pobreziaren aurkako Estatu Ituna

- Estrategia geografikoen eta sektore-estrategien garapen parte-hartzailea bultzatzeko
- Kanpo zorra kudeatzeko lege bat egiteko eta onartzeko
- Lankide boluntarioen Estatutua onartzeko

Ahalegin eta aurrerapen horiek guztiak Espainiako herritar guztiona dira, akordio politikoen eta herritarren mobilizazioaren emaitza diren aldetik.

7. Dokumentu hau sinatzen dugun alderdi politiko guztiok, gure jarduera- eta hauteskunde-programetan, hainbat aldiz adierazi dugula gure konpromisoa kalitatezko elkarlana lortzeko eta haren helburuen arabera finantzaketa bermatzeko.

8. Iraganean hartutako konpromisoak gaurkotu egin behar direla benetan eraginkorrak izan daitezzen, bereziki 1996. urtean Elkartasunaren aldeko Itunari dagozkion alderdiak. Halaber, beharrezkotzat jotzen dugu konpromiso horiek areagotzea, egungo errealitate politikoak, gizarte-errealitateak eta nazioarteko errealitateak oinarri hartuta.

9. Aurreko guztiari erantzuteko asmoz, munduko pobrezia errotik kentzeko itun politiko batean zehaztu nahi dugu borondate hori, eta ezinbestekotzat jotzen dugu elkarlanerako politikaren funtsezko printzipioak eta alderdiak une bakoitzean gobernuan dagoen alderdi politikoaren gainetik egotea. Hala, zenbait orientabide politiko, kudeaketa-neurri eta lege-ekimen adostu ditugu, gure garapenerako elkarlanak aurrean dituen erronka handiei modu iraunkorrean erantzuteko; hala nola, gure GLOaren kantitatea eta kalitatea etengabe areagotzea, politiken koherentzia, Parisko Aldarrikapenaren printzipioak erabat aplikatzea, gure elkarlanaren alderdi anitzeko presentzia areagotzea, eragileen aniztasuna hobeto koordinatzea –horixe da, hain zuzen, gure laguntza-sistemaren bereizgarrietako bat– eta erronka horiei behar bezala erantzuteko erakundeak erreformatzea.

## A. Orientabide Politikoak

Elkarlanaren arloari dagokionez, Espainiako politikak honako ildoetara jarraitu behar die:

- a) Milurteko Garapen Helburuak lortzea eta pobrezia errotik kentzea.
- b) Garapenerako Laguntza Ofizialaren eragina eraginkortasunez bermatzea.
- c) Laguntzaren harmonizazioari eta lerrokadurari buruz hartutako nazioarteko konpromisoak betetzea, Parisko Aldarrikapenean adierazitako printzipioak eta Europako Garapenerako Kontseiluko printzipioak oinarri hartuta.
- d) Demokraziaren aldeko apustua egitea, garapenerako nahitaezko baldintza baita. Demokraziaren kalitatea sustatzea eta giza eskubideak gauzatzea eta errespetatzea helburu nagusitzat hartzea, honako alderdi hauei arreta berezia eskainiz: Zuzenbide Estatuaren indartzeari, gai publikoen

kudeaketa egokiari eta demokrazia ordezkatzaillearen eta parte-hartzailearen eta aniztasun politikoaren sustapenari.

e) GKEk elkarlanerako politiketan duten eginkizun garrantzitsua aitortzea, haiek indartzen laguntzea eta parte-hartzea eta gizarte-elkarrizketa sustatzea.

f) Elkarlanerako politika Estatuko politika bihurtzea, gobernuaren interes komertzialak, politikoak eta ekonomikoak alde batera utzita.

g) Pobreziari eta desberdintasunari buruzko sentsibilizazioa nazioartean sustatzea.

h) Garapenerako elkarlanarekin lotutako erakunde-sistema goitik behera erreformatzea eta koordinazioan eta koherentzia politikoan aurrerapausoak ematea, Milurteko Garapen Helburuak lortzeko helburua oinarri hartuta.

i) Kongresuko Elkarlanerako Batzordearen, Elkarlanerako Kontseiluaren eta Lurralde arteko Batzordearen aitzindaritzat indartzea, Espainiako elkarlanerako politikan negoziazio- eta adostasuneremu nagusiak baitira. Alde horretatik, arreta berezia eskaintzea Estatuko, Elkarte Autonomoetako eta tokiko administrazioen arteko koordinazio-beharrari. Koordinazio-ahalegin horretan, Lurralde arteko Batzordeari eginkizun garrantzitsua dagokio.

j) Garapenerako nazioarteko finantzaketa-mekanismoak sortzeko proposamenak bultzatzea, baita kapital-ihesaren, paradisu fiskalen eta iruzur fiskalaren aurka egiteko proposamenak ere. Alde horretatik, kapital-zuriketaren aurkako ekintzetan berreskuratutako funtsen ehuneko bat garapenerako laguntzetarako gordetzeko aukera aztertzea eskatzen dugu.

k) Alderdi anitzeko politika baten aldeko apustua egitea, garapenerako elkarlanari buruzko nazioarteko agenda mahai gainean jar dezan.

l) Ekintza humanitarioak kanpo-politikaren mendeko tresna gisa ez erabiltzea eta ekintza humanitarioen independentzia-, neutraltasun- eta impartzialtasun-printzipioak betetzea. Printzipio horiek oinarri hartuta, Indar Armatuak zer-nolako rola izan dezaketen berrikustea.

m) Espainiako garapenerako elkarlana erronkara egokitutako erakundeen esku egotea, eta erakunde horiek behar adina kudeaketa-gaitasun eta malgutasun izatea, baita lan horretarako nahikoa ezagutza ere. Horretarako, ezinbestekoa da arlo hori beharrezko giza baliabidez, finantza-baliabidez eta baliabide teknikoak hornitzea.

n) Espainiako herritarrei informazio-gardentasunean oinarritutako politika eskaintzea, garapenerako elkarlanean parte hartzen duten erakundeen eta Kongresuaren bidez. Horren guztiaren helburua garapenaren alde Espainiak zenbateko laguntza bideratzen duen eta zenbateko eragina duen ezagutaraztea da.

o) Laguntzarako funtsak benetan behar dutenei ematea: hau da, herrialde behartsuenei. Honako alderdi hauei lehentasuna ematea: oinarrizko gizarte-beharrei, hezkuntzari, osasunari,

## Pobreziaren aurkako Estatu Ituna

osasun demografikoari eta ugalketa-osasunari, edateko ura biztanle ororen eskura jartzeari eta oinarrizko saneamenduari. Horrez gain, helburu bakarra eta zuzena pobrezia errotik kentzea duten programak lehenetsi daitezela eskatzen dugu, genero-ikuspegia elkarleen garapenerako funtsezko alderdi gisa hartuta.

p) Europar Batasunean politiken koherentzia sustatzea, bereziki merkataritza- eta nekazaritza-gaietan, giza eskubideak funtsezko irizpidetzat hartuz bi aldeko eta alde anitzeko merkataritza-negoiazioetan.

q) Estatu Itun honetan ageri diren printzipioak eta ekimenak eremu autonomikoetan eta tokiko eremuetan aplikatzea.

## B. Kudeaketa-neurri zehatzak

### B.1 Garapenerako Laguntza Ofiziala

a) Garapenerako Laguntza Ofizialaren arloko ahaleginei eustea, 2012. urtea baino lehen Estatuko administrazio guztiek, Elkarte Autonomoek eta Tokiko Erakundeek Errenta Nazional Gordinaren % 0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialerako gorde dezaten. Horretarako, urtero bete beharreko egutegi zehatz bat onartzea.

b) Bi aldeko GLOaren sektore-lehentasunak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara (OGZ) bideratzea, eta zerbitzu horietara zuzendutako laguntza ofiziala sektoreka bana daitekeen GLOaren % 20tik gorakoa izango dela bermatzea. Horrekin batera, Espainiako elkarlanaren lehentasun geografikoa indartzea ere eskatzen dugu, 2015. urtea baino lehen GLOaren % 25 (gutxienez) Gutxien Aurreratutako Herrialdeetara (GAH) bideratu ahal izateko. Ahalegin horretan, garrantzitsua iruditzen zaigu Sahara azpiko Afrikako lurraldeei arreta berezia eskaintzea eta, hori guztia lortzeko, ezinbestekoa da GAHentzako urtero laguntza areagotzea .

c) Garapenerako Laguntza Ofiziala areagotzeko tresna itzulezinez baliatzea, azken urteotako ibilbideari jarraiki elkarlan itzulgarriak GLO guztiaren % 5 ez duela gaindituko bermatze aldera.

d) Parisko Aldarrikapenean hartutako konpromisoaren arabera, etengabeko aurrerapausoak egitea Garapenerako Laguntza Ofiziala espainiar ondasunen eta zerbitzuen erosketatik bereizteko, 2010. urtea baino lehen gutxienez Garapenerako Laguntza Batzordearen batezbestekoaren parrera iritsi ahal izateko.

e) Alde anitzeko erakunde ez-finantzarioei laguntzak emateko joerari eustea, erakunde horiek erabakiak hartzeko organoetan parte har dezatela indartzuz eta alde anitzeko elkarlan-estrategia definituz.

f) Kongresuko Elkarlanerako Batzordeari urtero txosten bat ematea, Espainiak alde anitzeko organismoiei (finantzariei eta ez-finantzariei) zenbateko laguntzak ematen dizkien argitzeko eta gai

horretara zenbat baliabide bideratzen diren zehazteko. Horrez gain, txosten horretan baliabide horien bidez zer helburu lortu nahi diren eta haiek lortzeko zenbateko aurrerapauso eman diren azaldu beharko da.

g) Nazioarteko Elkarlanerako Legea betetzea eta, gardentasuna indartzeko, txosten gehigarri bat egitea, Estatuko Aurrekontu Orokorrekin batera. Txosten horretan, argi eta garbi azaldu beharko da urtero GLOerako zenbateko aurrekontua bideratuko den, aurrekontu hori kontabilizatzeko zer irizpide erabiliko diren eta zer sailetan banatuko den.

h) Plan Zuzentzaileari aurrekontu-plangintza zehatza eranstea, baita urteko Planei ere. Haietan guztietan, sektoreka eta tresnaka zenbateko ehunekoak aurreikusten diren adierazi beharko da, gutxienez.

i) GKEek kudeatutako proiektuen baterako finantzaketaren ehunekoa areagotzea, GLOaren urteko gehikuntzaren arabera.

j) GKEek kudeatutako baliabide guztien % 5, gutxienez, Garapenerako Hezkuntzari eta Herritarren Sentsibilizazioari buruzko proiektuetara bideratzea, elkarlanerako politikaren funtsezko alderdiak diren aldetik.

k) FAD kredituen (Garapenerako Laguntza Funtzak) hornidura bere horretan uztea, Tresna Ebaulatzeko Plana garatzeko Plan Zuzentzaileak egindako aurreikuspena betetzen ez den arte.

## B.2 Zorra

a) Hurrengo legealdian, kanpo zorraren kudeaketa arautzen duen abenduaren 7ko 38/2006 Le-garen behin-behineko bigarren xedapenaren arabera Gobernuak aurkeztutako bernegoiazio- eta kitapen-planak berma dezala Gutxien Aurreratutako Herrialdeen bi aldeko zorraren % 100 kitatzea. Kitapena aplikatzen den herrialdeetara orain arteko funts berberak bideratuko dira bi aldeko GLO itzulezinaren programen eta proiektuen bidez.

b) Zorra garapen bihurtzeko programak abiarazten jarraitzea, batez ere OGZe begira eta gara-pen bidean dauden gainerako herrialdeetan Milurteko Garapen Helburuak lortzeko xedea oinarri hartuta. Programa gauzatzen den herrialdeetara orain arteko funts berberak bideratuko dira bi aldeko GLO itzulezinaren programen eta proiektuen bidez. Zorraren trukea ahalik eta gardenta-sunik handinez egingo da, eta, prozesu horretan, erabat bermatu beharko da gizarte zibilaren eta, bereziki, Hegoaldeko herritarren parte-hartzea Parisko Aldarrikapeneko printzipioen arabera, trukaketa-programen bidez aurrerapausoak eman behar dira espainiar enpresen inbertsioen sus-tapenekiko bereizketa-prozesuan.

c) Kanpo Zorrari buruzko Nazioarteko Arbitraje Epaimahai bat sustatzea nazioartean. Epaimahai horretan, zordunak eta hartzekodunak berdin-berdin egongo dira ordezkaturak, eta erabakiak ins-tantzia neutral batek hartuko ditu.

d) Zorraren iraunkortasunari irtenbide bat bilatzeko mekanismo eraginkorrak, parte-hartzaileak eta gardenak sortzeko konpromisoa finkatzea, egitegi eta guzti. Konpromiso horrek bateragarria izan behar du Milurteko Garapen Helburuak lortzeko behar den gizarte-inbertsioarekin. Halaber, irtenbideak aurkituko dira honako arrazoiren baten ondorioz zorrak egin dituzten herrialdeentzat: huts egindako enpresa-proiektuak, giza eskubideak errespetatzen ez dituzten proiektuak, ingurumen-hondamendiak eragin dituztenak, interes orokorra kontuan hartu gabe bultzatutakoak edo kredituak behar ez bezala erabiliz bultzatutako proiektuak, betiere delitua frogatzeko modukoa bada.

e) Berriz ere zorpetzeko arriskuari aurre egiteko printzipioak finkatzea. Ekimen horren baitan FAD eta CESCE kredituen lege-erreformarako proiektua ere garatu behar da, kanpo zorraren kudeaketa arautzen duen abenduaren 7ko 38/2006 Legeak aurreikusia. Proiektu hori Kongresuan aurkeztu beharko da egungo legedian zehar, eta hurrengo legediaren lehenbiziko urtean bideratuko da.

### B.3 Merkataritza

Merkataritza-gaietan, espainiar gobernuak une oro errespetatu behar du Elkarlanerako Legean eta Espainiar Elkarlanerako Plan Zuzentzailean xedatutakoa, pobreziari aurre egiteko garatutako politiken koherentzia-printzipioari dagokionez.

a) EBn eta MMan merkataritza-arau berriak proposatzea. Arau horiek bermatu egin behar dute bi aldeko nahiz alde anitzeko merkataritza-akordioak onuragarriak izango direla herrialde behar-tsuentzat. Hala, aipatutako arauak lagungarriak izan behar dute herrialde behar-tsuetako produktuak gure merkatuetan saltzeko. Horrekin batera, arau horiek mugak jarri behar dizkiote bereizi gabeko merkataritza-liberalizazioari, herrialde ahulenen gizarte-errealitatea, ekonomia eta ingurumena honda ez dezaten.

b) Halaber, espainiar gobernuak ikuskatu egin beharko du EB, merkataritza-politikek eta -jarduerak orain arte lortutako gizarte- eta ingurumen-mailak ez dituztela murriztuko berma dezan, batez ere lan-arloan. Horrekin batera, EBri dagokio lotura estuagoak sortzea LANE, FAO eta UNCTAD erakundeekin, Nazio Batuetan eta Alde Anitzeko Akordioetan hartutako erabakiak errespeta daitezten.

c) EBk eta espainiar gobernuak bete egin behar dute esportaziorako dirulaguntzak desagerrarazteko konpromisoa, baita dumpinga sortzen duen beste edozein barne-laguntza ere.

d) Enpresa handiek herrialde behar-tsuetan egiten dituzten inbertsioak eta jarduerak arautzeko ekimenak proposatzea, bai nazioartean, bai Espainian bertan. Ekimen horien helburua da enpresa handien jarduerak ondorio kaltegarriak ez eragitea herrialde behar-tsuetan giza eskubideetan, ingurumenean edo gizarteetan.

e) 2008. urtean zehar nazioarteko merkataritzari buruzko kontsulta-batzorde bat sortzea. Batzorde horretan administrazio publikoek, eragile ekonomikoek nahiz sozialek eta gizarte zibileko elkarteek hartu behar dute parte.

f) Legealdi bakoitzean behin, gutxienez, txosten bat egin behar da Espainiak hirugarren herrialdeekin –batez ere, PMArekin– sinatutako inbertsioen elkarrekiko babeserako bi aldeko akordioen gizarte- eta ingurumen-eraginari buruz.

## C. Lege-ekimenak

a) Elkarlanaren arloan diharduten enpresen eta erakundeen artean enpresen gizarte-erantzukizunarekin lotutako politikak eta arauak aplikatzeari buruz Espainiako Elkarlanerako 2005-2008 epealdirako Plan Zuzentzailean adierazitakoaren arabera, arauen bidez erregulatuko dira elkarlanaren arloko eragile horiek bete beharreko erantzukizun-irizpideak, baliabide ekonomiko publikoak kudeatzen dituztenean. Horrez gain, enpresen gizarte-erantzukizunaren gainean sortutako gainerako arauetan kontuan hartu behar dira beti espainiar enpresen kanpo-jarduerak.

b) 38/2006 Legearen aurreikuspenei jarraiki, Garapenerako Laguntza Funtza (FAD) eta CESCE kredituak erreformatzeko Lege bat sortu behar da, pobreziaren aurkako borrokarekin bat datozen kreditu-tresna integratua eta koherentea lortze aldera.

c) Elkarlanerako dirulaguntzei buruzko araudia erreformatzea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legea Orokorren 18. xedapen gehigarria garatuz. Erreforma horrek helburua hau da: araudiak nazioarteko elkarlanaren berezko ezaugarriak behar bezala biltzen dituela bermatzea, jardueraren bereizia den aldetik. Horrek ez du esan nahi funts publikoen kudeaketan eman beharreko bermeak murriztu behar direnik. Garapen horrek ere eragina izango du Elkarte Autonomoen eta Tokiko Erakundeen elkarlanaren arloko dirulaguntzei buruzko araudietan.

d) Beharrezko lege-erreformak egitea, pertsona fisikoek GKEei emandako dirulaguntzak kengarriak izan daitezten, pertsona juridikoen ehuneko eta baldintza berberetan gutxienez. Horretarako, irabazi asmorik gabeko erakundeen erregimen fiskalari eta mezenasgorako pizgarri fiskalei buruzko 49/2002 Legearen 19.1. artikuluan finkatutako ehunekoa % 35eraino handitu beharko da, gutxienez.

e) Lankide boluntarioen Estatutuak behar dituen garapenetan aurrera egitea, eta, alde horretatik, Elkarte Autonomoekin beharrezko negoziaketak egitea.

f) Nazioarteko Elkarlanerako Espainiar Agentzia erreformatzea, eta, alde horretatik, beharrezko pausoak ematea GLOaren baliabideak eraginkortasunez kudeatzeko behar adina kudeaketa-gaitasun dagoela bermatzeko, baita aurrekontuaren malgutasun nahikoa eta beharrezkoa den lan-politika ere. Horrez gain, hauek dira erreforma horren bidez bereziki lortu nahi diren helburuak: elkarlanaren arloko profesionalen eremu horretan sartzeko aukera zabaltzea, helburuen araberrako kudeaketa erabat finkatzea eta sektore-gaiei behar bezala heltzea eta Elkarlanerako Bulego Teknikoen eginkizuna bultzatzea.

g) Parlamentuko Taldearteko bat abiaraztea politiken koherentziari buruzko hausnarketan eta analisisan aurrera egiteko.

h) Garapenerako Laguntza Ofiziala ez litzateke erabili behar Espainiako gehiegizko CO2 isurpenak konpentsatzeko eta Kyotoko Protokoloaren arabera Espainiari dagozkion konpromisoak betetzeko, ez nazioarteko merkatuetan kredituak lortuz, ezta Karbono Funtsei edo Garapen Garbiaren aldeko Mekanismoei laguntza eskainiz ere. Horrenbestez, helburu horretarako gastuen % 2tik behera onartuko da Garapenerako Laguntza Ofizial gisa.

Itunaren jarraipen-batzorde bat sortuko da. Itun horretan dokumentu hau sinatzen duten indar politiko guztiek pate hartuko dute, baita Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundearen ordezkari batek eta eragile ekonomikoek eta gizarte-eragileek ere. Haiek guztiak urtero bilduko dira Itunaren jarraipena egiteko eta hura zenbateraino betetzen ari den ebaluatzeko. Horretarako, alderdi politiko bakoitzak jarraipen horretarako arduradun bat izendatuko du.

Dokumentu honen sinatzaileok ordezkatzeko ditugun talde politikoek politika eta ekimen horiek guztiak abiarazteko beharrezko mekanismoak bultzatzeko konpromisoa hartzen dute, bai Parlamentuko jardueran, bai Estatuko gobernu, tokiko gobernu eta/edo gobernu autonomiko gisa dituzten erantzukizunetan, dokumentu honetan finkatutako egutegiaren arabera.

Madril, 2007ko abenduaren 19a

### Sinatuta izenpetua:

- Partido Socialista Obrero Español (**PSOE**)
- Partido Popular (**PP**)
- Izquierda Unida (**IU**)
- Convergencia i Unió (**CiU**)
- Esquerra Republicana de Catalunya (**ERC**)
- Partido Nacionalista Vasco (**PNV**)
- Coalición Canaria (**CC**)
- Iniciativa per Catalunya Verds (**ICV**)
- Bloque Nacionalista Galego (**BNG**)
- Chunta Aragonesista (**CHA**)
- Eusko Alkartasuna (**EA**)
- Nafarroa Bai (**NaBai**)
- Coordinadora de ONG de Desarrollo- España



# pobreziaren aurkako estatu ituna



**COORDINADORA**  
ONG PARA EL DESARROLLO  
ESPAÑA